



ZIORDIA, SUKALDETIK

Aurreneko erakunde harrera

Aurten erroldatutakoei harrera egingen diete Arbizu eta Etxarri Aranazko udaletxeetan bihar / 5

Etxarri Aranazko autokarabanendako guneko lanak eguberrietarako despedituko dituzte / 7

Mendigoizaleen Eguna ezingo da ospatu baina Aralarko meza haien omenez izango da / 13

Binakako Txapelketa irabazi ondoren Lau eta Erdiko finalean egon nahi du Joseba Ezkurdiak / 12-13

Urtarrilaren 17an 'Zama doinuz arindu' jaialdia egingen dute Internet bidez / 14

Emendakin bidez, aurrekontuetatik 482.000 euro etorriko dira Sakanara / 7

Xabi Mintegi etxarriarrak 'Amanece en San Fermin' liburua argitaratu du / 15



Jesus Mari Alegria Urtiaga eta Olatz Irizar Martinez aurkezpeneko bideo deian. REBEKA

Ziordian kozinatutako istorioak

Santa Luzia egunarekin batera herriko sukaldarien inguruan idatzitako liburua aurkeztu zuen Ziordiko Udalak

Rebeka Mendoza ZIORDIA

Benjamin Urdiain eta Javier Arbizu izenak ezagunak egiten zaizkizu? Ziordiko bi sukaldari ezagunen izenak dira, baina be-
raiek bezalako beste hamar egon dira ere, eta orain dela gutxi arte, lan egiten jarraitu dute. Gehienak erretiratu dira, baina haien bi-
zipenak kontatzen dituen liburu bat argitaratu berri dute. Jesus Mari Alegria "Pinttu" musikari eta idazle araiarrak argitaratu du *Navarra, hasta la cocina: Historias de los grandes cocineros de Ziordia* liburua, Ziordiko Uda-
laren eta Sakanako Garapen Agentziaren laguntzarekin.

Igandean, Santa Luzia egunean, aurkezpen txiki eta xume batekin

Jesus Mari Alegriaren liburua aurkeztu zuten. Pandemia au-
rretik aurkeztekoa zen baina egoera zela eta, atzeratzea era-
baki zuten. Hortaz, gaur egungo baliabideei esker emanaldia modu telematikoa egin zuten. Ondo-
ren, herriko etxe guztietara gaz-
ta eta liburu banaketa egin zuten.

Idazleak herriari maitasun han-
dia dionez eta bertako sukaldar-
iekin harremana mantentzen duenez, Ziordia liburu honekin omentzea erabaki zuen. Bertan, Valentin Pozueta, Candido eta Casimiro Mendia, Benjamin Urdiain, Javier Arbizu, Valentin Agirre, Antonio Iglesias, Gerardo Mendia, Juan Manuel Mendibe, Koldo Lopez de Goikoetxea, Rufi-

no Bastida eta Jose Ignacio Urdiain sukaldarien aztarnak islatu ditu.

Argitalpenaz

Liburua Valentin Pozuetaekin hasten da, sukaldari belaunaldi honen aitzindaria. Bera idazlearen senitartekoa zen. Jesus Mari Alegria txikitatik Ziordian ibili da, bertan bere osaba bizi zen eta herria asko maite du, bere hitzetan "Ziordian parranda hoberenak egin ditut". Idazlea, musikaria ere bada eta Musicos Sin Fronteras Gobernu Kanpo Erakundeko parte da. Hortaz, liburuan abesti gutxi batzuk bilduta daude ere.

Ez da errezeta liburu bat, su-
kaldarien historia pertsonalak

kontatzen dituen liburua baizik. Horregatik, sukaldarien bizitza eta norendako prestatu duten janaria topa dezakegu. Errezeta gutxi batzuk aurkitu ditzakegu ere, noski. Hemengo produktuekin egindakoak. Sukaldarienda-
ko Ziordiko jakiek ez dute pare-
korik, are gehiago, gehienek haien amen ikasleak izan zirela aitortu dute. Ziordiko emakumeek elikagai gutxirekin jateko hobe-
rena egiten baitzuten. Hala ere, lehen gizonak herriatik kanpo lan egitera joatea emakumeak joatea baino errazagoa zen, eta hortaz liburuko protagonisten artean ez dago emakumerik.

Olatz Irizar Martinez alkateak, ziordiar guztiek bezala sukaldar-
ien berri zuen. Baina herrian betidanik ostatu eta jatetxeak egon arren, ez da inoiz elitezko jatetxerik egon. Alkatearendako zaila da sukaldari arrakastatsu hauen jatorria azaltzea, egia bada ere, gutxi batzuk familia zuzena direla. Benjamin Urdiainen ka-
suan, ziurrenik liburuan aipatzen den ezagunena, bere iloben (Jose Ignacio Urdiain eta Juan Manuel Mendibe) irakaslea izan da.

Egia bada ere, nahiz eta Ben-
jamin Urdiainek estatuko lehen-
dabiziko Michelin izarra jaso, ez da beste euskal sukaldari batzuk bezain famatua egin. Izan ere, Ziordiko sukaldariak onak eta xumeak dira eta haien irudia ez dute ezagutzera eman. Batez ere, gehienak ez direlako jatetxeen jabeak izan, baizik eta jatetxe horien sukaldari buruak.

Beraz, liburua sukaldariei bu-
ruz gehiago ezagutzeko aukera paregabekoa da. Alegriak, 2019ko udan Ziordiko Udalarekin harremanetan jarri zen. Ordurako, liburua idatzia zuen arren, aurrera eramateko baliabideak behar zituen. Eta Ziordiko Udalarik dokumentatzeko aukera ona iruditu zitzaionez, ekonomia laguntza eskaini zion. Baina, liburu osoa "Pinttu" rena da, berak idatzi, azaleztatu eta publikatu du. Hor-
taz, gaztelera hutsean publikatu-
ta dago. Liburua oso pertsonala da, idazlearen bizipen eta espe-
rientziatik idatzitakoa.

Zein da zein?



Valentin Pozueta

Londres eta Parisen lanean egon zen. 1922an Amerikako Estatu Batuetara joan zen. Los Baños hirian Wool Growers Restaurant ireki zuen.



Juan Manuel Menabe

Afizioa familiatik datorkio, bere anaia, bere ama eta bere osaba Benjamin Urdiain sukaldariak baitziren. Altzania hotelean (gerora Iturrimurri) hasi zen, bertatik Artagan jatetxera joan zen. Ondoren, Madrilako Club 31 jatetxean eta Zalacain jatetxean egon zen. Bertako bigarren sukaldari buru izendatu zuten. Osasun arazoak medio, Bartzelonako Guria jatetxera joan zen eta bertatik Juanito Kojua jatetxera. Azkenean, Aritzal-
ko jatetxea Etxarri Arantzen ireki zuen.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Casimiro eta Candido Mendia

Casimiro Donostiako Londres hoteleko sukaldari buru izan zen. Besteak beste, Zestoako bainuetxean, Sevillako Alfonso XIII. hotelean, Ritz hotelean eta Puerta del Hierron lan egin zuen.

Candido Mendiak Alfonso XIII. erregearendako eta March magnatearendako janaria egin zuen. Maria Cristina Hotelean, Sevillako Alfonso XIII. Hotelean, Montevideon eta Ritz Hotelean aritu zen sukaldari.



Javier Arbizu

Donostiako Juanito Kojua jate-txean hamar urtez lan egin zuen. 1974an Salduba jate-txea eraiki berri zuen eta 1998an saldu zuen. 1991tik Espainiako Futbol Federazioan kolaboratzaile izan da. Gaur egun, bertan lan egiten jarraitzen du, mundial guztietara joan da eta beheko mailetakoko selekzioendako janaria prestatzen du ere. Bere pasaporteak urte bakarra irauten du eta erabilitako produktuak beti hemengoak izan daitezela ahalegintzen da.



Valentin Aguirre

Donostiako Bartolo jate-txean hasi zen eta bertatik Artagan jate-txera joaten da. Bere ibilbide osoa jate-txe berean eman du. Pertsona aipagarriei bazkaltzen eman die, Migel Indurain eta Juan Carlos erregeari, besteak beste.



Antonio Iglesias

Lekarozen ikasi eta gero, Baionan Larreta jate-txean lan egin zuen. Ondoren, Iruñako Maisonnave jate-txean, Bartzelonako Udala eta Guria jate-txeetan eta Bilbon Burrentzi jate-txean lan egin zuen. Bere bizitzako akaberako urteak Getaria jate-txean eman zituen.



Benjamin Urdiain

Donostian hasi zen, Izkiña jate-txean. Gero Baionara eta Parisera joan zen, bertan Athenée Plaza hotelean aritu zen sukaldari. Bilboko Artagan jate-txeko sukaldari buru izan zen eta 1973an Madrilen Zalacain jate-txea ireki zuen. 1987an hiru Michelin izar jaso zituen, estatuko lehenbiziko jate-txea izan zen aitortza hori jasotzen.

Jasotako sariak: Gastronomia Nazio Saria 1981an, Ziordiko kuttunen 1995ean, El Gorro Blanco saria 2001ean...

Gainera, Uharte Arakilgo eta Araiako Artzai Eguneko epaile izan da.

Gaur egun erretiratuta dago eta Caritas erakundearen sukaldaritza klaseak ematen ditu.



Gerardo Mendia

Lekarotzen ikasi eta gero, Tres Reyes hotelean lan egin zuen. Candanchu hotelean, Maite Comodore hotelean Madrilen eta Zarauzko La Perla hotelean baita ere. Gerora, Iruñako Alhambra, Maitena eta La Olla jate-txeetan lan egin zuen. Azkeneko horretara torero eta zezen ganaduzale asko joaten ziren, Domecq azienekoak edota Cayetano Rivera adibidez.



Rufino Bastida

Lekarotzen sukaldaritza ikasi eta gero, Gasteizko Meson Nazonalean 3 urtez lan egin zuen. 1978an Portalon jate-txera lanera sartu zen, eta urteetara Koldo Lopez de Goikoe-txeari lana eskaini zion. Jate-txe berean 38 urte inguru darama.



Jose Ignacio Urdiain

1971 urtean Canciller Ayala Gasteizko hotelean hasi zen lanean, gerora bere osaba Benjamin Urdiainekin Zalacain jate-txean lan egin zuen. Hortik Asador Fronton Madrilen, La Gabarra jate-txea Bilbon eta, azkenik, Asador Jardin El Fronton Madrilen lan egin zuen. 1985an Madrilen bere jate-txea OX's izeneko ireki zuen. Bertan, Nafarroako zaporeak nagusi dira, hemengo produktuak erabiltzen baititu.



Koldo Lopez de Goikoe-txea

Iturmendin parrandan zegoen Javier Santxotenenarekin Portalon jate-txean lan egiteko aukera iritsi zitzaion. Bertan, jada 35 urte eman ditu. Jate-txetik famatu asko pasa dira: Karra Elejalde, Jorge Oteiza, Espainiako erregeak, Indurain, pilotariak, futbolariak...

**ZIORDIKO
12 SUKALDARI
EZAGUNAK OMENDU
DITU "PINTTUK"
LIBURUAN**

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

**Etxera eramateko
gasoleoa**

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

ORLEGHY
-RENOVABLES-

Autokontsumorako instalazio fotoboltaikoak
Biomasa galdarak (pellet, egurra, ezpalak...)
Geotermia eta aerotermia
Instalazio eta mantentze zerbitzua
Pellet salmenta on-line

Tlf y Fax: 948 562 604 | Gipuzkoa kalea, 17 · Altasu
www.orleghy.com · info@orleghy.com



ASTEKOA

RAF ATXURI

Musukodun Eguberri

Pandemiak pandemia eta birusak birus, aurten ere Eguberri gertatzea, eguzkia eta mundua gelditu ez diren seinale garbia dugu. "Ez festak" kontzeptu kalapitosoaren porrotaren ondoren (ezezko batek sekula santan ez du hainbeste baiezeko ekarri), inor gutxi ez du "ez gabonak" terminoa dantzarazi.

Eguberri, bada, etengabeko eboluzio zoroan dabilen fenomeno soziologikoa da. Egun, gehiago du kontsumozko objektutik, ospakizun espiritualetik baino. Bitoriano Gandiaga idazle handiak *Gabon dut anuntzio* liburu zoragarrian orain dela 60-80 urteko gabon xume, minimal samar eta xamurtasunez eta sentimen biluziz beteriko Eguberri mintzo da. Artean baserri giroko jendartea naturarekin bat eginik zegoen, eta dirua eskas zebilen hiri, kale nahiz baserrietan. Mundu hori joan zen, ordea.

Hamarkada gutxitan kontsumoaren erresuma instalatu zen dirua eta beharra zeuden bazter orotan, AEBetako kultura hegemonikoak telebista bidez elur leunez, kanpaihots xarmantez, film eta abesti goxoz, karrika argi distiratsuz eta ametsezko opariz bete zituen egunok eta guk geronek biribilketa eta zortziko

NORBERAK BEGIRADA ETA SENTIMENDU EZBERDIN BATEZ BIZIKO DU AURTENGOA

zorionsutan zamalkatu genuen ilusiozko zaldi eder hori, oturuntza eder eta opari erraldoien artean, Vienako kontzertu handiosa eta eski jauziak barne.

Eta hara non, *dejavu* honi aurtengoan etena iritsi zaio, pentsa, baita Durangoko

Azokari ere. Neurrigabekeria nagusia den munduan, zer da neurritz, tentuz, arduraz eta mugez festa bat ospatzea?

Ikuskizun dago, eta norberak begirada eta sentimendu ezberdin batez biziko du aurtengoa. Jende gutxiagorekin, lankideen bazkari edo afaririk gabe, etxeratzeako ordu jakinarekin (hamaika biltzeko eta bizitzeko jaio ginen), kalez kaleko *Bazkuen amorez gabe...*

Zain dezagun geure burua, zain dezagun elkar. Eguberri, Bazko eta Urte berri on.

Datorren asteak izanen da urteko azken GUAIXE asteakaria, hurrengoa urtarilaren 15ean argitaratuko da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

"Iluntasunari etxerako argia"

SAKANAKO SARE

Espetxe batek sortzen digun sententzio iluna; espetxe politika krudel honek sortzen duen sufrimendu ilun hori; urrunketaren gordintasun ilun hori; aita, ama edo biak espetxean dituen umearen aurpegian sumatzen den iluntasun hori; larriki gaixorik den presoaren egoera ilun hori; espetxe urteak preso eta senideen bizkarrean pilatzen ari den zama gogor eta ilun hori... Iluntasun horiek guztiek adierazten digute herri honek itxi gabeko zauriak zabalik dituela.

Argiztatu behar dugu iluntasun hori. Urratsak egitea posible dela sinetsita gaude, ari dira urratsak egiten. Ez dira nahikoak borondate politiko garbi bat adierazten ez duten bitartean. Urrunketa politikarekin amaitzea da preso guztiak haien

jaiolekutik gertuen dagoen espetxean egotea, eta, gaur-gaurkoz, hori oso kasu gutxitan gertatzen ari da.

Baina sinets dezagun presoen korapiloa askatzeko mementoa dela, eta bultzatzen dezagun elkarrekin norabide horretan. Eta lehenengo urrats bezala, hori gertatu behar da: urrunketa amaitu eta euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia bertan behera uztea.

Jakina! Hor ez da amaituko gure borroka, preso eta iheslari guztiak etxeratzea delako gure helmuga, preso eta iheslaririk gabeko herri bat dugulako amets.

Gaur-gaurkoz, Ipar eta Hego Euskal Herriko jendartearen gehiengo oso zabalak presoen etxeratzea elkarbizitza demokratikorako beharrezkoa eta onuragarria dela

pentsatzen du. Dagoeneko jendartean hain errotuta dagoen borondate honek oztopoz beterik zegoen bidean argiz beteriko bidezidorra irekitzea lortu du.

Orain, etxerako bidean iluntasunari irabazi diogun argitasun eremu hori guztiz zabaltzeko mementoa da, etxeratze bidezidorra lau erraileko autobide bihurtu dadin.

Bitartean, iluntasun horiek guztiak argiztatzen jarraitu behar dugu. Kaletik eta aktibaziotik, herri eta auzoetan egiten diren dinamiketarik, ikastetxeetatik, lantokietatik, instituzioetatik, ...

Abenduaren 19an Iruñeko espetxera egingen dugun manifestazioan parte hartzeko deia egin nahi dizuegu. Preso eta iheslariak etxeratze bidearen parte izan nahi dugun herritar guztiok beste hitzordu garrantzitsu bat dugu. Zatoz gurekin, Izan Bidea, preso, iheslari eta deportatuak ETXERA!

GUTUNA

Zorionak Luis!

JOXE ALDASORO JAUREGI

LAGUNEN IZENEAN

Urte bete gehiago. Berrogeita bostak ere ezin gustura, nahi eta behar bezala ospatu. Egingo dugu hala ere larunbata egun berezia eta alaia izan dezazun. Merezki duzulako.

Urte nahasia, ezta? Agintzen diguten tokitan egon nahi ez, nahi dugunetan debekatuta. Baten bat eskubideak murrizten ari zaizkigula konturatu da, a ze nobedadea! Arduraz jokatzen dutenak

otzanak. Arauak betetzen ez dituztenak arduragabeak. Zientzialarien ospea lurrean. Sasimedikuen aldarean. Denok dakigu dena. Sarean neurriko egia, nahi duzun kolorekoa, aurki dezakezu. Garai bateko etsaiak elkarren beharrean. Hozkaka aspaldiko lagunak. Dena aldatu da, diote batzuk. Ezer ez, besteek.

Hoge urte espetxeratu zintuztenetik. Berrogeita hamar Burgosko epaiketarik. Ezer ez da berdin. Ezta askatasuna borrokatzen duen herria ere, ezta askatasuna borrokatzen duten herritarrek ere. Edo bai? Nahi bera, helburu bera: presoak etxean, Euskal Herria aske.

Eta gurdia mugituko bada tiratu egin behar, edo bultzatu bestela. Ari gara. Ez behar adina, baina ari gara. Pixkanaka-pixkanaka guztiak etxeratze urratsak ematen ari dira, ari gara, ari zarete. Batzuk barrutik eta beste batzuk kanpotik ari garelako.

Ez dago formula magikorik: zenbat eta gehiago izan tiratzen dugunok, zenbat eta indar handiagoarekin bultzatzen, atea irekiago, etxea gertuago.

Zorionak Luis! Ahalik eta hobekien ospatu, guk egingo dugun antzera, esperantza bihotzean, irribarrea ahoan eta ukabila estututa!

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarik
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Kolaboratzailea:

Rebeka Mendoza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



GUTUNA

Tristuraz hil?

JOSUNE GAMBRA ETA JOSEBA BARRIOLA

ZAINDUZ, NAFARROAKO ZAHAR
EGOITZETAKO EGOILIARREN SENIDEEN
ELKARTEAREN IZENEAN

Gure familiaren esperientzia da. Gure amak 99 urte ditu. Ez dago COVID-19 gaitzaz kutsatuta. Baina hori baino zerbait larriagoa du. Tristuraz hiltzen ari zaigu. Bakardadez joaten ari zaigu.

Esaten digute konstante bitalak ondo dituela. Animoz baxu dagoela. Baina ezin izan dugu hilabetetan bisitatu. Telefonoz hitz egiteko ez da gai. Ez dugu pantaila handirik erabiltzeko modurik. Ezin gaitu ikusi. Okada eta kakari suabe batengatik bi egunetan isolatuta egon da egoitzaren barruan, kutsatua ote zegoen jakin arte. Negatiboa eman dio.

Baina sentitzen dugu tristuraz ari zaiola bere azken denbora joaten. Eta hauxe da, tristuraz eta bakardadean, hiltzeko modurik txarrena. Jasan ezina da bisitarik gabe egotea. Bisitak egitea urgentziaz eskatu dugunean, erantzuna burokratikoia izan da.

Hau oiuhu bat da. Zahar etxeetako egoiliarren senideen elkarte guztiak gauza bera ari dira esaten. Geriatriako elkarteek gauza bera diote. Gobernariak esan, esaten dute arazo emozionalak, bakardadea, gorputz ariketak beharrezkoak direla, baina gero isolamendu larria jartzen diete aitona-amonei eta ahaideei. Langileen lan baldintzak ez dira onak, langile kopurua zeharo eskasa, borondate eta enpatia duten langileek barne ezinegona sufritzen dute, ahaideei atek ixten zaizkigu. (ez dago arropa egokirik, testak egiterik, neurri guztiak gordetzerik).

Atzetik datorren egoera ari gara orain sakon sufritzen. Zaharren egoera negozio bihurtu nahi dute batzuk eta gobernuak ez dute eskubidetzat hartzen atentzio duina eta kalitatezkoa. Gobernuendako lehena da "ekonomia", hau da, aberatsen ongizatea.

Ez, zahar egoitza ez da kotxe matxuratu eta zaharkituen gordelekua bezalakoa. Ez. Ez dugu tristuraz hil nahi. Ez dugu onartzen gure gurasoak tristuraz eta bakardadean bizitzea.



Sakanako Mankomunitateak, udalek eta hainbat eragilek antolatu dituzte erakunde harrerak.

Erroldatutakoei erakunde harrera egingen diete

Etxarri Aranatz, 11:30ean, udaletxean eta Arbizon, 13:00etan, udaletxean. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Euskara Zerbitzuak eta bi udalek antolatu dituzte ekitaldiak

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Kezka bat: "nola egin harrera gure herrietan erroldatzen diren herritar berri guztiei?" Eta, hortik abiatuta, asmoa: "pertsona horiei gure herrian ditugun zerbitzuen berri ematea eta jakinaraztea gure herrietan euskaraz bizi garela eta hizkuntza osasuntsu dagoela. Aldi berean, animatzea gure herrian parte hartzera, gure herriko kide aktibo izatera". Izaskun Errazkin Beltzaren hitzak dira, Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzuko teknikariarenak.

Pertsona Migranteen Nazioarteko eguna da gaur. Eta data hori kontuan hartuta antolatu dituzte biharko erakunde harrerak

Arbizon eta Etxarri Aranatz udalek eta Mank-ek. Hainbat hizkuntzatan idatzitako zuzeneko gonbidapenak banatu dizkiete etorri berriei. Gonbidapena emateko eta ekitaldietarako harrera egin behar den herrialdeetako jatorri bereko pertsonak opatu dituzte. Esaterako Suleiman maliarra bere herrialdekoen bitartekaria izanen da Arbizon.

Zergatiaz

Begoña Zestau Baraibarrek, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak jakinarazi duenez, "aurtengo egoera bereziagatik ongi etorria emateak zentzu berezia du. Zeren jendeak

jarraituko du etortzen. Erakundeoi ongi etorria egitea garrantzitsua iruditzen zitzaigun, neurri txiki batean bada ere, horrek partaide izateko sentimendu txiki bat sortzen duelako". Eta keinu bezala Anitzartean zerbitzuak ongi etorri hitza hainbat hizkuntzatan irakurri daitekeen oihala handia egin du. "Baina sakandarrek ere ongi etorri hitza beste hizkuntzatan ikusteko aukera izateko. Hizkuntzak ere aniztasuna direlako. Hizkuntza horiek euskararekin komuneko halako enpatia puntu bat dute".

Zestauk gaineratu duenez, "aurtengo egoera azkartu egin du harrera protokolo bat sortzea Anitzartean zerbitzutik. Denbo-

ra generaman honekin eta egoerak hausnarketa sakontzea ekarri du". Konfinamenduaren aurretik bileraren bat egin zutela ere gaitzatu du Errazkinek. Eredua prestatu dute eta Sakanako udalei haren berri eman diete. Asmoa baita udal guztiek harrera protokoloa bere egitea.

Anitzartean zerbitzuak erakunde harrerak egiteko Nafarroako Gobernuaren Migrazio Politikak eta Justizia Departamentuaren dirulaguntza jaso du. Aurtengorako Arbizu, Etxarri Aranatz eta Ziordiko udalek interesa azaldu zuten, baina azken horrek azken orduko kontuengatik hurrengo baterako utzi du.

Errazkinek gaineratu duenez, "hainbat entitatek parte hartzen dugu harrera protokoloan. Udaletan erroldatzen dira. Beraz, udalek parte hartzen dute. Eta egin diren eta erroldatu berriei banatuko zaizkien esku orrietan udalek ematen dituzten zerbitzuen berri ematen da. Baina Sakanako Mankomunitatearen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen berri ere". Zestauk gaineratu duenez, "koordinazio bileran kontatu da eta beste herrietakoei interesa piztu die. Orduan ikusi beharko da noiz den posible eta nola".

Errazkinek nabarmendu zuen Arbizu eta Etxarri Aranatz Udalari Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide direla. "Azken urteetan zerbait egiteko eskaera egin zuten, jakinik UEMAn halako esperientziak daudela". Errazkinek gaineratu duenez, "etortzen diren pertsona horiek aniztasuna ekartzen dute, eta gure herrian dugun hizkuntza hori ezagutzera gonbidatu nahi ditugu. Baina, aldi berean, jakinarazi horretarako zein dirulaguntza dituzten".

Errotonda Inguraketa eta Urbasa kaleetako bidegurutzerako

Aurreikusitakoa baino txikiagoa egiteko proposamena egin da; parte hartze prozesua martxan dago

OLATZAGUTIA

NA-2410 errepidea eta Urbasa etorbidea bat egiten duten bidegurutzea aldatzea aurreikusia dago. Trafikoa bideratzeko egungo bidegurutzearen ordeztu errotonda bat egingen da. Olatzaguti-

ko hirigintza planean errotonda handi bat aurreikusten da, katastroko sei partzelari eragiten diena. Bi ez beste guztiak familia batenak dira eta errotonda egiteko proposamen alternatiboa egin dute: hura txikiagoa izatea

errepidea etxeetatik urrunago mantentzeko. Aldaketak Nafarroako Gobernuaren Herri Lan Departamentuaren oniritzia du.

Hirigintza planaren aldaketa egin behar denez, herritarren parte hartze prozesua martxan da. Asteazken eguerdian aldaketaren berri emateko bilera irekia egin zen udaletxean. Plana www.olazti.eus web orrian kontsulta gai izanen da ilbeltzaren 13ra arte. Eta ekarpenak egin nahi dituenak andoni@ig-er.com e-posta helbidera idatzi dezake.



Emakumezkoa Urbasa kalean gora.

Tokikom elkarteak bere sariak banatu ditu

Sariketa euskarazko tokiko hedabideen lana aldarrikatzeko modua da. Ohiko urteko azalik onena, edukirik onena eta ikus-entzunezko onena sariez aparte, finalisten artean irakurleek aukeratutako lanari ere saria eman diote. Guaixe finalista izan da

SAKANA

Euskarazko tokiko komunikabideen elkarteak, Tokikomek, bere sariak banatu zituen atzo. Toki komunikabideen lana bikaintasuna eta gizarteratzea du helburu sariketak, dagoeneko bosgarren edizioa duena. Aurten Tokikom Sariak banatzeko ekitaldi presentzialaren ordez, toki telebistetan eta elkarte sarako webguneetan batera eman zen telebista saio baten bidez jakinarazi zituzten saridunen izenak atzo. Saio horretan, eta umore klabean beti ere, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik errepaso zabala eman zioten euskarazko toki komunikabideek urtean egindako lanari, arreta berezia jarritz saria eskuratu duten edukietan.

Elkarteak 60 hedabidetik gora biltzen ditu. Haiek sariketara 52 lan aurkeztu zituzten sariketako hiru ataletako batetara: urteko azalik onena, edukirik onena eta ikus-entzunezko onena. Epaimahaia Euskal Herriko Unibertsitateko Edorta Aranak eta Tania Arriagak, eta Mondragon Unibertsitateko Zuriñe Maguregik osatu dute. Lan zaila izan dute aukeraketa egiten, kalitate handiko eta eduki zein formatu oso desberdinetako lanak aurkeztu baitira sariketara. Maila bakoitzeko hiru finalista aukeratu zituzten. Gainera, aurten, publikoak bozketa bidez Komunitatearen Saria banatu du.

Sarituak

Azalik onenaren saria Debagoienako Puntua astekariak lortu du, Azkoitiko Maxixatzen eta Sakanako Guaixe aldizkariarekin lehia estuan. Epaimahaiak lan grafikoa goraipatu du: oso elementu sinple gutxiarekin oso irudi adierazgarria osatuz, alde estetiko garbitasuna, oreka eta dotorezia galdu gabe.

Edukirik onenaren saria, berri, Durangaldeko Anboto asteka-



Umore giroan egin zen sari banaketa eta www.guaixe.eus ikusgai egon zen.

GUAIXE AZALIK ETA IKUS-ENTZUNEZKO ONENAREN MAILETAN FINALISTA IZAN DA AURTEN

riarendako izan da Zaldibarko hondakindegiko gertakari latzen inguruko erreportajeagatik. Otsaila erdialdean hiru orrialdeko tarte zabala eskaini zion, hainbat ikuspuntu, testigantza eta kazetaritza molde uztartuz. Lan horri eman dio edukirik onenaren saria epaimahaiak, Uribe-Kostako Hirukarekin eta Orio eta Aiako Karkarekin norgehiagokan.

Azkenik, ikus-entzunezko onenaren saria Zumaia aldera joan da aurtengoan. Erlo Telebistak eta Baleike aldizkariak erreportaje ikusgarria sortu dute, herriaren garai batean zegoen marea errotaren berri emanez. Epaimahaiak ikus-entzunezkoaren beraren faktura bikaina eta atzetik sumatzen den dokumentazio lan izugarria nabarmendu dute saria lan honi ematerako orduan. Kategoria honetan Beterri-Burun-

tzako Aiurri eta Sakanako Guaixe ere aritu dira lehian.

Sariketaren aurtengo berrikuntza Komunitatearen Saria izan da, irakurleen bozka bidez aukeratu dena. Bederatzi lan finalisten artean publikoak saria Beterri-Buruntzako Aiurrirendako izan da, "#Bertsovid-19" ekimenagatik.

Adierazpenak

Hirugarren urtez segidan Guaixe Tokikom Sarietan finalista izan da. Guaixeko lantaldearen dako aukeratuak izate hutsa "pozgarria da; irakurleen aldetik astero jasotako aitortza aparte, kanpoko begirada batek egindako lana aintzat hartzea hobetzen segitzeko beste estimulu bat da".

Tokikomeko zuzendari Alaitz Artolazabal Amilletak zorianak eman zizkien saria jaso duten eta parte hartu duten toki komunikabide guztiei. Azpimarratu zuenez, "zabalduta dagoen aurreiritziaren kontra, euskarazko toki komunikabideek kazetaritza lan aparta egiten dute, euskarri eta formatu guztietan, gainera". www.tokikom.eus webgunea bisitatu eta lan finalista guztiak arakatzera gonbidatu zuen ere.



Zaindus elkarte kideek emandako azalpenak entzuten.

Adinduen egoitzen zerbitzua zaintzeko elkartea

Nafarroako egoitzetako erabiltzaileen senideek Zaindus elkarteak egoiliarren eskubideak defendatu nahi ditu

SAKANA

Pandemiak agerian utzi ditu adinduen egoitzetako hainbat defizit: "egoitzak isolamendu zentro bihurtu dira eta haien itxierek gure nagusiendako tratu txar instituzionalak ekarri dituzte, erabiltzaileen eta langileen eskubideak urratzen dira, langile falta dago, lan baldintzak prekarioak dira, erakundeek ikuskapen falta dago... Hala uste dute Nafarroako egoitzetako erabiltzaileen senideek Zaindus elkarte kideek eta horren arrazoa aurrekontuen murrizketek eta zerbitzuen pribatizazioek dutela gaztigatu dute.

"Erakundeek babesgabatasuna" salatu dute ere. Eta COVID-19ak egoitzetan eragindako kutsatze eta heriotza kopuru handia gogoratuz, nabarmendu dute: "ezin dugula onartu pandemia batek familiengan hondamenak eragitea". Izan ere, elkartekideen iritziz "administrazioen pribatizazio eta ekonomizatze asmoek merkataritza irizpideetan oinarritutako negozio eta irabazi ereduak ekarri dute, batez ere errentagarritasun ekonomikoa bilatzen duena". Eta hori egoiliarren kaltetan dela diote.

Helburuak

Zaindus elkarte kezka bera zuten foru geografiko 30 familiak osatu eta aurkeztu zuten lastailaren 19an. Haien helburua zaharren ahotsen bozgorailua izatea da. Batetik, egungo osasun krisiagatik adinduen egoitzetan indarrean diren neurrien inguruko gogoeta

sustatzeko; eta, bestetik, pertsona erdigunean jarriko duen egoitzen eredu publiko bat aldarrikatu dute, pandemiak agerian utzitako gabeziak gaitzitzeko.

Horretarako, besteak beste, eskatu dute "pandemiari aurre egiteko hartzen diren neurri eta protokoloen ebaluazioan eta bisiten eta irteeren kudeaketan" parte hartzea. Aldi berean, "elkarrizketa eta gizarte eragileen parte hartzearen bidez", administrazioari eskatu diote: "mendekotasuna artatzeko egungo eredu alda dezala, izaera unibertsaleko gizarte eta osasun zerbitzuen sare publikoa sustatuz, partaidetzako hurbilekoa eta arreta duina eta kalitatezkoa duena, sistema osoaren kontrol zorrotza eginez".

Elkarte kideek Nafarroako adinduen egoitzetan dauden aldarrikapenak zein diren jakin nahi dutenez, zenbait senidek Altsasuko egoitzakoen berri emateko asmoa azaldu zieten elkarte kideei herenegun.

Kontaktua

Zaindus elkartetik mendekotasuna duten adinekoen senideak antolatzen animatu dituzte. Elkartekideekin harremanetan jartzeko zaindus.cuidando@gmail.com e-postara idatzi daiteke.



Zuntz optikoa herri txikieta ere iritsiko da. ARTXIBOA

Aurrekontuen emendakin bidez 482.000 euro ibarrera

Sakanako Garapen Agentziaren 2 egitasmoarako eta Arbizuko, Altsasuko eta Olatzagutiako udalendako

SAKANA

Nafarroako Gobernuaren 2021eko Aurrekontu Foru Legeari aurkeztutako emendakinak Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean aztertu ditu. Gobernuaren sustengu diren PSNk, Geroa Baik, Ahal Duguk, I-Ek eta EH Bilduk adostu dute haiek aurkeztutako 250 emendakinek aurrera egitea, tartean ibarrerako bost.

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) bide horretatik 156.000 euro jasoko ditu. 116.000 euro Banda Zabaleko plana garatzeko izanen da. Sakanako Mankomunitateko Telekomunikazio Batzordeak Guifinet fundazioarekin elkarlanean zuntz optikorik ez duten ibarreko herri txikieta zuntza eramateko proiektua landu dute. Diru ekarpen horrekin Arakil, Irañeta, Uhartea Arakil eta Arruazura eramanen litzateke zuntza. Emendakina Geroa Baik eta EH Bilduk aurkeztu zuten.

SGArendakogainontzeko 40.000 euroak Sakanako mugikortasun eredu berri baterako egitasmoa garatzeko izanen da. Mugikortasunerako gero eta zerbitzu publiko gutxiago daude eta ibilgailu partikularrekiko gero eta menpekotasun handiagoa dago. Asmoa da Sakanako eta, bide batez, landa gunetarako baliagarria izan daitekeen eredu posible baten prototipoa sortzea eta, horretarako, egun mugikortasun zerbitzuak ematen dituzten eta eredu berriak lantzen ari diren lurraldeko eragileekin

landuko litzateke gaia. Ahal Duguk proposatutako emendakina da.

Lakuntzako eta Arbizuko udalek sustatuta, Kattuka haur eskola 2011ko irailean zabaldu zituen ateak. Nafarroako Gobernuak 70.000 euroko dirulaguntza agindu zion Arbizuko Udalari. Finantza erakundeek eragindako krisiagatik eta luzamenduenagatik, udalak 2008an onartutako dirulaguntza kobratu gabe segitzen du oraindik. Hori zuzentzeko eta foru administrazioak ordainketa behingoz egin dezan, EH Bilduk proposatutako emendakina onartu da eta hala jaso da Nafarroako aurrekontuetan.

Altsasuko Udalak Zelandi eskolako urbanizazioa hobetzeko 236.000 euro jasoko ditu Nafarroako aurrekontuetatik. Eskolako zuzendaritzak, Zelandiako eskola kontseiluak eta Guraso elkarteak hainbatetan egindako eskaera da. Euria egiten duenean putzuak sortzen dira eta hori eragozteko euri ura hartzeko kanalizazioa eginen da. Horrekin batera, zorua ere berrituko da. Ikastetxeak 400 bat ikasle hartzen ditu. Geroa Bairen emendakina izan zen.

Olatzagutiko Udalak, azkenik, 20.000 euro jasoko ditu. Horiekin hitzarmen bat eginen du udalak herrian dagoen etxebizitza premia eta alternatibak aztertzeko. Etxebizitza duina izateko dauden beharrei neurri zehatzekin erantzuteko proiektua eginen da heldu den urtean. EH Bilduren emendakina izan da.

Autokarabanendako gunea eguberrietarako

Larreñondo kalean dago, birziklatze etxolaren ondoan, eta 17 autokarabanendako tokia izanen du. Lanak azaroaren erdialdean hasi ziren eta eguberrietarako despidituko dituzte

ETXARRI ARANATZ

Autokarabanendako gunea egiteko ideia aurreko legegintzalditik heldu zen. Hala azaldu digu Silvia Marañon Chasco alkateak, eta gaineratu duenez, "Etxarri leku estrategikoan dago, Euskal Herriaren erdian. Hori dela eta, autokarabana erabiltzaile askok geldialdia egiten dute herrian, bidea jarraitu baino lehen. Gure ustez, egoera hori arautzeko modu bat da gunea, eta, bide batez, autokarabanistek Etxarri eta inguruak ezagutzeko eta herrian kontsumitzeko aukera bat ere".

Gunea sortzeko ideia izanik, Marañonek azaldu digunez, "herriko hainbat autokarabanistekin lan taldetxo bat sortu genuen". Gunearen nondik norakoak zehaztu zituzten haiekin. Gainera, "arratsalde batez eraman zituzten beraien autokarabanak hara eta, horrela, sarrerak eta aparkalekuen kokapenak ongi kalkulatu genituen".

Larreñondo kalean prestatzen ari diren autokarabanendako guneak 900 metro karratu hartzen ditu eta 17 autokarabana sartzeko aukera ematen du. Lanek 13.000 euroko aurrekontua dute. Horri aurre egiteko Etxarri Aranatzko Udalak Nafarroako Gobernuak despopulazioaren kontrako jarduerak finantzatzeko Zehaztapen



Aparkalekua egiteko lanak aurreratuta daude.

Libreko Tokiko Inbertsioen Planeko dirulaguntza erabiliko du (26.000 euro jaso zituen).

Guneaz

Bere ibilgailua han aparkatzen dutenek aukera izanen dute ur biltzea betetzeko eta ur beltzak husteko ere. Gune berria erabiltzea doakoa izanen da, "herria ezagutzera emateko asmoz sortu baita" nabarmendu du alkateak. Hala ere, alkateak zehaztapena egin du: "ezin izanen da 72 ordu baino gehiago erabili aste batean, beraz, 3 egun egon

daitezke aste batean". Autokarabanistek herri erdian epe labur horretan egoteko aukera ematez, "herria ezagutu eta eskaintzen dituen zerbitzuak erabil ditzakete. Hori guztion onerako izanen da: dendak, tabernak, negozioak... Eta, gainera, herriari bizitza gehiago emanen diola uste dugu. Gainera, gurean egon ondoren, ingurunea gustuko balute, bultzatzean udal kanpineko zerbitzuak denbora luzeagoz erabiltzeko aukera izan lezakete", gaineratu du Marañonek.

Txalaparta

Taberna

2021 urte berri on!!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

MAPFRE
Urte berri on!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com · 948 563 354
San Juan 48 behekoa · Altsasu



Makina bat altsasuar eta sakandar baliatu ziren bonuez erosketak egiteko. ARTXIBOA

Erosketak bulkatzeko 4.089 bonu saldu ziren

Altsasuko Dendarien Elkartek herriko merkataritza sustatzeko Altsasuko Udalarekin batera antolatutako ekimenaren balorazio positiboa egin du eta parte hartu duten merkatariek uste dute kanpainak herriko saltokiak benetan bultzatu zituela

ALTSASU

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko, Altsasuko Udalak eta Altsasuko Dendarien Elkartek (ADE) Altsasu bonua izeneko kontsumo bonua sustatu zuten udan. Bonu bakoitzak 30 euro balio zuen eta Iortia Kultur Gunean erosi behar ziren. Establezimenduetan 40 euroko edo gehiagoko erosketa eginez gero, eta Altsasu bonoa eraku-

tsita, 10 euroko beherapena eginen zitzaion bezeroari.

Altsasuko Dendarien Elkartek Altsasuko Udaleko ekonomia garapenerako batzordean aurkeztu zituen Altsasu Bonoa kanpainaren adierazi du emaitzak azaroaren 25ean. Mikel Cabestrero teknikariak adierazi du kanpainan 77 denda, zerbitzu eta ostalaritza gunek parte hartu zuten eta guztira 4.089 bonu saldu ziren Iortia

Kultur Gunean. Txartelak nagusi modan, oinetakoetan eta osagarrietan trukatu ziren (%45,10), kirolean (%15,17) eta liburutegietan eta papergintzan (%8,04).

Kanpainan parte hartu zuten saltokiek begi onez jo dute ekimena. %87k adierazi zuten kanpainak herriko saltokiak benetan bultzatu zituela, eta %93ak azaldu zuen 2021ean kanpaina errepikatuko luketela. Halaber, %46k

nabarmendu zuten beren saltokietan normalean izaten ez dituzten bezeroak izan zituztela.

Abenduko kanpaina

ADE, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, abenduan elkarteko establezimenduetan egiten diren erosketak sarituko ditu *Nik? Altsasun* leloa duen kanpainarekin. Abenduaren 24ra bitartean ADEn biltzen diren 37 saltokietako edozeinetan erosketak egiten dituztenek txartel zenbakidunak jasoko dituzte, eta abenduaren 25ean dozenaka sari sorpresa zozketatuko dira. Saridunen berri www.sakanakogida.eus webgunean eta ADEaren sare sozialetan emango da.

TopTopa

Sakanako 11 establezimenduk "TopTopa" online salmentarako plataformanrekin bat egin dute. Mendialdeko Denok Bat, merkataritza eta zerbitzuen federazioak, eta Cederna-Garalurrek sustatu dute. www.toptopa.shop webgunea Interneteko azoka plaza da. Haren bidez saltoki txikiek kostuak aurreztu eta tokiko garapena ikusarazi eta sustatzen dute. Produktuak komertzializatzeko kanal berriak gainera landa-ekonomia aktibatu eta hurbileko produktuak bultzatzeko balio dezake. Horretarako, establezimendu bakoitzak bere produktuei balioa emateko estrategia digital propioa garatu beharko du eta "Toptopa" horren parte da.



Sakana eskura izateko modu bat.

Sakana aplikazioan ibarrari buruzko informazio praktikoa

Jakinik sakelako telefonoak eguneroko bizitzan ezinbesteko elementu bihurtu direla, Sakanako informazio erabilgarria zabalteko bitarteko gisa erabiltzea erabaki dute Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Garapen Agentziak. Eta "Sakana zure eskuan" leloa hartuta, telefono mugikorrendako "Sakana app" doako aplikazioa aurkeztu dute.

Hura mugikorrera jaisten duten sakandarrek eta bisitariak Sakanak eskaintzen duen guztia erabiltzaileen eskura izanen dute. Izan ere, aplikazioak ibarrari buruzko albisteak, agenda, merkataritza edo intereseko web orrietara loturak opatuko ditu. Sakana aplikazioa bateragarria da Android eta iOS (Apple) sistema eragileekin.

DUELA 25 URTE...



Duela 25 Uharte euskal kankak liburua

Haurtzarotik ikasi eta urteetan jasotako abestiak liburu batean bildu zituen Pedro Mari Etxabarririk. 92 orri zituen publikazioak eta bi ataletan banatuta zegoen. Alde batetik, garai bateko 51 kantaren letrak jaso zituen eta, bestetik, duela 25 urteko talde ezagunen kantu esanguratsuenak. Liburua Mendikoa kafetegian 1.000 pezetatan eskuratu zitekeen. Egilea, uhartearra, Lekunberriko apaiza zen.



ALTSASU GURASOAK

Kontzentrazioen etena

Aske ez badaude ere, auzipetu guztiak modu batera edo bestera kalean daudenez, Altsasuko auzia salatzeke eta presoan askatasuna aldarrikatzeko ostiraleko kontzentrazioak bertan behera gelditu dira. Adur, Jokin eta Oihanen Foru plazako irudiak ostiralean ezabatu zituzten.

Ganboaren 'Bideak' dokumentalak hasi du bere ibilbidea

Aritz Ganboa de Migelek, gazta bat aldean eramaten zuela, Arruazu eta Izaba mendietan barna korrika lotu zituen joan den urteko lastailaren 26an eta 27an. Bere arbasoen bi herrien arteko ibilbidea *Bideak* dokumentalean jaso zuen Xabier Unanua Goikoetxea irurtzundarrak zuzendutako lantaldeak.

Ikus-entzunezkoa atzo Iruñean mustu zuten, gaur Izaban eta bihar, 19:00etan, Altsasuko iortia kultur gunean. Emanaldi horietara dokumentala aurrera egiteko diru ekarpena egin zutenak daude gonbidatuta. Ilbeltzetik aurrera egingen dituzte emanaldi publikoak.



Meezengo borda. ARTXIBOA

Borden ibilbidean konponketak eginen ditu udalak

Homologatzeko beharrezko konponketak eginen ditu. Sandidegi ondoan oinezkoek bi ibilbide izanen dituzte

ARBIZU

Arbizuarrak basoan zuten borda bat urtero konpontzen hasi ziren 2005ean. Sandidegi, Herriarena, Artabakar eta Mezeriain bordak konpondu zituztenean haiek lotzen zituen ibilbidea prestatu zuten eta 2009ko udazkenean mustu zuen. Arbizon ordurako zeuden Maiza eta Mundiñorako ibilbideei batu zitzaizen bordena. 14 km-ko zirkulu ibilbidea da PR-NA-135.

Ordutik, nonbait seinaleztape-na okertu egin da eta bidea atzera ere homologatzeko, Arbizuko Udalak beharrezko konponketak eginen dituela jakinarazi du. Udaletik aurreratu dutenez, Sandidegi bordaren inguruan bideari adar bat eginen diote, oinezkoek ezkerretik edo eskuinetik joateko aukera izan dezaten. Bestetik, Arbizuko Udalak Meezengo bordan konponketa lanak egin ditu aurretik: teilatua berritu du, bal-

dosa jarri du lurrian eta dozena bat ohatze ere.

Bestalde, Arbizuko Udalak jakinarazi du, irailean Lezizan isurketa izan zela. Foruzaingoak ikertu zuen hura eta halako isurketei akabera emateko asmoz, udalak salaketarekin aurrera segituko du. Arbizuko udal ordezkariak zuten informazioaren berri emateko larunbatean herriko lau tokitan batzarrak egin zituzten.


Azkenik, Arbizuko Udalak enkante bidez bederatzi lursail saltzeko deialdia egin zuen. Udalak jakinarazi duenez, Iruñeko etorbidean eta Akerruntza kalean zeuden lursailak saldu ditu. Aurrenekoan etxe bakarra egiteko aukera zegoen, atzenekoan, berri, bi etxe. Salgai jarri ziren eta saldu ez ziren gainontzeko zazpi lursailetatik sei San Joan bidea kalean zeuden eta azkena, berri, Arnatz kalean.

COVID-19 agerraldia mugatzeko lanetan Irurtzunen

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak deituta, PCR probak egin zizkieten 150 bat pertsonari astearte arratsaldean eta beste 65 pertsonari atzo. Aurreneko baheketak COVID-19 gaitza 22 pertsonetan atzeman du. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, senitarte inguruan izan ziren gaixotasunaren kutsatzeak eta handik Atakondoa eskolara

zabaldu ziren. Ikastetxe publikoan bederatzi gelatako ikasleak etxeko konfinamenduan daude. Eskolak Arakil, Imotz, Ollo, Goñi, Itza eta Irurtzungo 470 bat ikasle hartzen ditu.

Egoera onbidetatzeko Irurtzungo Udalak eta Osasun Departamentua koordinazio bilerak egiten ari dira gaixotasunaren hedapena lehenbailehen mugatzeko, eta gaitzaren zabalkundea zehazki zein den jakiteko. Horregatik deitu zituzten herritarrek proba egitera.



Laranjaz aurreikusitako etxebizitzendako gunak, morez aurretik bizitegirako aurreikusitakoak, berde argiz industrialderako.

Hirigintza hazkunde mugatua aurreikusi da

Altsasuko Udalak onartu ondoren, hirigintza planaren lurraldearen okupaziorako estrategia eta ereduaren atariko bertsioa bi hilabetez jendaurrean dago jendeak nahi dituen ekarpenak egiteko

ALTSASU

Altsasuko Udalak Udal Plan Orokorra edo hirigintza plana berritzeko prozesua hasia du. Haren lurraldearen okupaziorako estrategia eta ereduaren atariko bertsioa azaroaren 26an onartu zuen Geroa Bairen aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Udalak hirigintza hazkunde mugatuaren aldeko apustua egin du: "aukera hori ekonomikoki bideragarria da hiri garapen partzialak ahalbidetzeko erreserba gisako merkatu egoera normalean, bizitegitarako lurzoruak hartzeko gaitasun egokia duelako, topografia leuna duelako, orientazio ona duelako, egungo hiri lurzoruekin eta distantzia txikira irits daitezkeen oinarritutako hirigintza zerbitzuekin jarraitzen duelako".

Onartutako agiria udaletxean edo www.altsasu.eus webgunean kontsultatu daiteke dagoeneko. Onartzearekin batera, bi hilabete jendaurreko informazio aldia zabaldu zuen. Altsasuarrek eta

pertsona interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharak egin ditzakete, horretarako otsailaren 10era arteko epea dute (hura barne).

Onartutakoaz

Plan berrian urbanizatzea aurreikusten den eremu berriak 216.500 m² ditu. Herriaren ipar-ekialdean dago, klinikaren atzeko partetik Mendizabalgain, Buztindegia, Otai, Pilotajauku eta Aldagoitiarraino. Guztira 860 etxebizitza egiteko aukera dago, 40 etxebizitza hektareako gutxi gorabehera. Aurreko hirigintza planean hirigintza hedapen eremuen ondoan daude. Haietako asko garatu gabe daude eta guz-

tira 270.000 m² hartzen dute. Esaterako, Arkangoa, kiroldegia eta A-1 autobiaaren artean, Amandrea, Beikolar edo Lezalde.

Agirian aurreratu denez, hiri hedapena gauzatzeko jarduketara sistema, oro har, konpentsaziokoa izanen da, ekimen partikularrekoa. Ondorioz, udalak gastua aurreratzeko aurreikuspenik ez luke egin beharko. Gaur egungo planean lankidetzara sistema dago indarrean, hau da, udalak sustatzen ditu hirigintza hedapenak eta lurjabeen kontura. Horrek makina bat auzibide sortu ditu.

Industrialdeei dagokienez, Altsasuko hirigintza plan berriaren atariko zirriborroak Kapitansorron, Erkuden ermitaren eta A-1 autobiaaren artean, 613.000 m²-ko industrialdea aurreikusten du. Harekin udalak enpresa berriak erakarri nahi lituzke. Bestalde, aurreko planetan industrialde gisa jaso eta berrantolatu gabeko 91.200 m² daude; Dermau batez ere, eta partzelatxoak Lastain eta Ibarrean.

860 ETXE ETA INDUSTRIALDE BERRIA KAPITANSORON EGINEN LIRATEKE PLANA GARATUZ GERO

AGENDA

DATORREN ASTEAN URTEKO AZKEN
GUAIXE ASTEKARIA, HURRENGOA
URTARRILAREN 15EAN IZANEN DA.
Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ALTSASU Izan bidea.
Ibiltarien sarea dinamikaren
barruan LABen eta ELAREN
elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Gazte agenda:
karaokea.
17:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Altsasuko musika eta
dantza eskolako urte amaierako
kontzertua.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Sakanako preso
politikoen egoera hauek
askatzeko bidea hitzaldia.
Jaione Karrera eta senide bat. Ermai.
18:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Askatasun
politikoen alde, kontrol
sozialaaren aurrean, gazteon
kriminalizazioaren aurka
antolatuta AGAren manifestazioa.
19:00etan, Foru plazan.

IRURTZUN Homoamak-Tras la piel
laburren emanaldia, Kattalingune
eta Hormak eta Mendialdeko
LGTBI+ kolektiboaren aurkezpena.
19:30ean, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal Presoak Euskal Herrira
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 19

ETXARRI ARANATZ Aurten
errolatutakoei erakunde
harrera. Etxarri Aranazko Udalak
eta Sakanako Mankomunitatea.
11:30ean, udaletxean.

SAKANA Bateragune auzia
salatzeko elkarretaratzeak.

12:00etan, udaletxeen parean.

ARBIZU Aurten erroldatutakoei
erakunde harrera.
Arbizuko Udalak eta Sakanako
Mankomunitateak antolatuta.
13:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda:
Escaperoom.
17:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Babian
zaude! familiarteko musika eta
antzerki ikuskizuna.
17:30ean, kultur etxean.

U HARTE ARAKIL Bi urte, lau
hilabete eta egun bat film
dokumentalaren emanaldia
Ismael Martiarena eta Gaizka
Aranguren intsumisoeekin.
18:00etan, udaletxean.

LAKUNTZA A la deriva Tarima
Beltza taldearen antzezlan.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 20

LAKUNTZA EIDABEren Meri,
Mari eta Lari antzezlan.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal
Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen aldeko

ZORION AGURRAK



Maren Azpiroz Andueza
Zorionak maitte!!
Dagoeneko 9 urte! Egun
ona pasa ta muxu asko
aittunan ta amiñen
partes!



Iraia Galarza Zubiria
3 urte!! Zorionak
preziosa familia
guztien partetik!!



Asier Beltza
Zorionak Asier! Saltsatako
perrexila, perrexilak behar
duen saltseroa ere, momentu
oro gozatu dezakeen azukre
koxxorra, biba zu!



ZINEMA

ALTSASU

IORIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Erlauntza (euskaraz)
Ostirala 18: 19:00

El Rey León
Igandea 20: 17:00

Enjambre (gaztelaniaz)
Igandea 20: 19:30

IORIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Undine zineforuma
Ostirala 18: 19:00
Igandea 20: 19:30

kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 22

ALTSASU Alex Txikonen *Mendi
biluzia/La montaña desnuda*
dokumentala eta solasaldia.
17:00etan euskaraz, 19:00etan
gaztelaniaz, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 23

ALTSASU Euskarazko irakurle
taldeak Alberto Ladron idazlearen
Gezurren basoa liburuaren
inguruan hitz egingen du.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Saharar herriarekin
elkartasuna! Saharar herria
bidegurutzean Beñat Hach
Embareken hitzaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ESKELA

Martin
Lizarraga Larraza


2020ko abenduaren 12an hil zen

Besarkada bat familiarendako

Ittur aldea elkarte

Dorrao

ESKELA

Zacarias
Quintana Ondarra

Gure basoek alaitasunez jaso dezaten
bere magaletan hazi eta bizi izan den
ahuntzaiaren distira.
Betirako argia osaba

Kintana familia

ESKELA

Zakarias
Quintana Ondarra

Zoragarria zen zurekin basoan paseatzea,
zure kontu zaharrak entzuten
nituen bitartean

IRAGARKI
SAILKATUAK

OHARRAK

Etxarri Aranazko Kultur,
kirol eta jendarte enti-
tateei diru laguntzak
emateko deialdia: Elkar-
teek bete beharreko bal-

dintzak; irabazteko asmo-
rik ez izatea, egoitza so-
ziala herrian izatea, zerga-
betebeharrak etab.-en
ordainketak egunean
izatea. Informazioa gehia-
go www.etxarriaranatz.eus
edo Udaletxean ber-

tan. Dokumentazioa aur-
kezteko epea abenduaren
31an amaituko da,
14:00etan.
**Etxarri Aranazko abes-
batzaren egutegia**
salgai: 1942tik 2020ra
koralaren ibilbidea era-

kusten duten 60 argazki
ditu. 10 euroren truke
Kaxeta, Sabando, Urgain,
Goikoetxea herb eta Ilaia
ileapaindegian. Ekarpen
txiki bat koralaren jar-
duerari laguntzeko.
iragarki@guaixe.eus



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

Francisco Lopez de Goikoetxea Irigoien

2020ko abenduaren 4an hil zen

Pertsonalki egitea ezinezkoa zaigunez,
honen bidez jasotako maitasun eta
dolumin adierazpen guztiak eskertu nahi ditugu

Seme-alabak eta ilobak



ESKELA

Francisco Lopez de Goikoetxea Irigoien

Gogoan zaitugu

Sakanako hiltegiak kideak



ESKELA



Remigio Lanz Hernandez

2020 abenduak 8an hil zen 82 urtekin

Isiltasun gelditik gatz,
gelditasuna dantzatu
isiltasuna kantatu
eta ixil-ixilik
geldi geldirik
gelditasun isilera goaz

Agur osaba, zure familia




ESKELA

Ines Ochoa Galarza

"Erabilera aspaldi galdu zuten hitz horiek
eder-ederrak iruditzen zaizkizu.
Inork gutxi estimatzen duen altxor hau
zurekin hondoratuko dela onartu behar"

Maite zaitugu amona

Haizea eta Aiora



OROIGARRIA



Eusebio Lazkoz Razkin

IX. urteurrena

Gure ondotik joan zinen,
baina ez gure bihotzetatik.
Beti jarraituko duzu gurekin.
Maite zaitugu

Emaztea, semeak, alaba eta bilobak

OROIGARRIA



Jose Mari eta Alberto



"Soilik ahazten dena dago hilda"

Etxekoak



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Uhaitz Flores Alonso**, azaroaren 19an Arbizun
- **Ilazki de Langarika Iragi**, azaroaren 28an Iturmendin
- **Naiara Perez Goikoetxea**, abenduaren 4an Iturmendin
- **Ireber Etxetxikia Villegas**, abenduaren 8an Irurtzun
- **Mouhamed Diallo**, abenduaren 8an Altsasun
- **Elaine Amores Hernandez**, abenduaren 13an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Francisco Lopez de Goikoetxea Irigoien**, abenduaren 4an Urdiainen
- **Petra Ostiza Galarza**, abenduaren 5ean Urdiainen
- **Beatriz Salinas Martinez de Ordoñana**, abenduaren 8an Urdiainen
- **Remigio Lanz Hernandez**, abenduaren 8an Iturmendin
- **Maria Goñi Igoa**, abenduaren 10ean Altsasun
- **Zacarias Kintana Ondarra**, abenduaren 11n Bakaikun
- **Martin Lizarraga Larraza** arruazuarra, azaroaren 12an Dorraon

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es



Ezkurdiaren eta Jakaren arteko igandeko finalerdia final handien itxura izanen du. ASPE

Ezkurdia vs Jaka, txapeldunak kaiolan elkarri mokoka

PILOTA Ezkurdiak eta Jakak Lau eta Erdiko finalerdia jokatu dute igandean pilotaren katedralean, Astelenan. Buruz Buruko txapeldunaren eta egungo Lau eta Erdiko txapeldunaren arteko partidak final handien itxura du eta ez dago favorito argirik

Maidet Betelu Ganboa ARBIZU

Azken hilabeteen Joseba Ezkurdiak ez du atsedetik hartzeko betarik ere izan. Izan ere, epe labur horretan hiru txapelketa ezberdinetan parte hartu behar izan du arbizuarrak, horrek dakarren neke fisiko eta psikologikoekin. Atera kontuak.

Azaroaren 15ean Buruz Buruko final laurdena jokatu zuen Altunaren kontra, eta 18 eta 22 galdu eta txapelketatik kanpo geratu eta gero, "lur jota" zegoea aitortu zuen aurrelari arbi-

zuarrak. "Pena da, pare bat egun oso izorratuta pasako ditut baina buelta emango diot. Txapelketak bata bestearen atzetik ditugu, eta horren alde ona da egoerari aurre egitera behartuta gaudela" adierazi zuen orduan.

"AZKEN ASTEAK OSO GOGORRAK IZATEN ARI DIRA FISIKOKI ETA PSIKOLOGIKOKI" JOSEBA EZKURDIA

Binakako txapela etxera

Buruz Buruko kolpe ikaragarria izan zen arbizuarrarendako, baina Julen Martijaren laguntzarekin burua Binakako Txapelketan jarri zuen. Abenduaren 4an jokatuak finalerdian biko sakandarrak Agirreri eta Albisuri 22 eta 9 irabazi zien partida oso gogorren, eta 4 egun beranduago, Bizkaian ateak itxita jokatuak final handian, Ezkurdiak eta Martijak merezitako txapela jantzi zuten Olaizola II.a eta Urrutikoetxea 13 eta 22 mendean

hartu eta gero, 900 pilotakada gurutzatu ziren final estu, gogor eta lehiatuan. Martijarendako bere lehen finala izan zen eta Etxeberrrikoak bere lehen txapela jantzi zuen, beteranoen pare bikain jokatu eta gero, eta Joseba Ezkurdiak Binakako bere bigarren txapela lortu zuen, 2018an Zabaletarekin lortutakoaren atzetik, partida ikusgarria egin eta gero. Pandemia dela eta, ez zuten txapela behar bezala ospatzerik izan.

Eta gaitzerdi. Izan ere, atsedetik hartzeko tarterik gabe, Binakako finala jokatu eta 5 egun eskasera, Lau eta Erdiko Txapelketako final laurdena jokatu behar izan zuen igandean Joseba Ezkurdiak Iñaki Artolaren kontra. Artola 8 tantotan utzita, finalerdietarako txartela lortu zuen arbizuarrak. "Beldurrez etorri naiz, hankaz-eta ez nintzen oso azkar ikusten. Hasieran erritmo handiarekin hasi gara biak, eta partida gogorra izaten ari zen, baina seinako berdinketatik aurrera Iñaki sufritzen ikusi dut. Uste dut egin beharrekoak ongi egin ditudala, buruz ongi ikusi naiz, gogor, sufritzeko prest, eta pozik nago irabazi eta Lau eta Erdiko finalerdietan nagoelako" azaldu zuen Ezkurdiak.

Oso estua, favorito argirik gabe Kaiolako hirugarren txapela lortu nahi du arbizuarrak (2018an eta 2019an irabazi zituen beste biak), baina horretarako igandeko finalerdian Erik Jaka, egungo Buruz Buruko txapelduna, izanen du aurrez aurre. Ezkurdia egungo lau eta erdiko txapelduna da, eta txapela defendatzeko lan bikaina egiten ari da. Beraz, bi txapeldun handi ariko dira elkarren kontra, final itxura duen eta favorito argirik ez duen finalerdian.

Aipatzekoa da 2020ko Lau eta Erdiko finalerdia 2019ko finalerdien ia kalkoa dira. Joan den urtean Ezkurdiak eta Jakak jokatu zuten finalerdietako bat, eta Altunak eta Lasok bestea. Aurten Ezkurdiak eta Jakak errepikatuko dute, baina Bengoetxea VI.ak hartuko du Lasoren

"PARTIDA ZAILA DUT; ERIKEK ASKO JOKATZEN DU ETA ASKO EXIJITZEN DU" JOSEBA EZKURDIA

tokia Altunaren kontra aritzeko, larunbatean, Bizkaia pilotalekuan (17:45, ETB1). Ezkurdiaren eta Jakaren arteko finalerdia, aldiz, pilotaren katedralak hartuko du, Astelenak, igandean (17:00, ETB1).

Ezkurdiak dio Eriken kontra "ongi defendatu beharra" dagoela

Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak, biek ala biek, lau eta erdira egokitzeke apenas izan dute tarterik, bata bestearen atzetik jokatu baitira Buruz Buruko, Binakako eta Lau eta Erdia. Kaiolako distantziara egokitzeke entrenamendu askorik ezin izan dute egin, baina finalean egoteko gogotsu daude biak.

Joan den urteko finalerdian 20 eta 22 irabazi zion Ezkurdiak Jakari, eta horretarako ederki sufritu behar izan zuen arbizuarrak. 15 eta 6 aurreratu zen Ezkurdia, baina Jakak buelta eman zion eta 21 eta 20 gerturatu zen. Ezkurdia gai izan zen une erabakigarri horretan eusteko, eta txokoan bolea bikain bat jo eta gero, 22 eta 20 irabazi zuen. Bi pilotariak ikusleak txalotzen eta ikusle guztiek bi pilotariei esker onak azaltzen despiditu zen finalerdia, final handien itxura izan zuena. Eta halako finalerdi estua espero da igandean Eibarren.

"Partida zaila dut. Final laurdenean hasieran hankaz-eta ez nintzen azkar ikusten, eta igandeko hori hobetu beharra dut, Erikek asko exijitzen baitu defentsan, asko arriskatzeko du, eta bere kontra ongi defendatu beharra dago. Erikek asko jokatzen du, kantxan mugitzera behartzen zaitu, eta horregatik ni hasieratik zentratuta atera beharko naiz kantxara eta nire erritmoa eta jokoa ezarri. Asko dago jokoa, eta dena eman beharra dago" nabarmendu du arbizuarrak.

"Egun gogorrak" izaten ari direla aitortu du Ezkurdiak

Azken asteak oso gogorrak izan direla aitortu du arbizuarrak. "Oso gogorra izaten ari da, bai buruz eta baita fisikoki ere. Azken egunotan Binakako finalerdia eta finala, bi partida oso gogor jokatu ditut, ondoren Lau eta Erdiko final laurdena, eta kosta egiten ari zait buelta ematea, gorputzez eta psikologikoki, baina aurrera egin behar da. Beste urte batez Lau eta Erdiko finalerdietan egotea lortu dugu eta ea igandeko topera nagoen".

Jakarendako Ezkurdia lau eta erdiko espezialista hutsa da

Atzo, osteguna, aukeratu zuten materiala eta saskian topatu zutenarekin pozik azaldu ziren Ezkurdia eta Jaka. Biek antzeko pilotak aukeratu zituzten. Jakak nabarmendu zuen Ezkurdia eta Jokin lau eta erdiko espezialista hutsak direla. "Ezkurdia oso ongi egokitzen da lau eta erdira, dena ongi egiten du eta arerioari aukera gutxi ematen dizkio. Jose-baren abiadurari aurre egiteko bera baino abiadura gehiago ematea, ez dago besterik. Berak egiten duena egiten eta angeluak ongi bilatzen saiatuko naiz" azaldu zuen.

Ezkurdiak Buruz Buruko txapelkunaren kontra jokatzeko ilusioa duela azaldu zuen. "Aterio latza da; ezker gantxo oso arriskutsua du eta pilota txokoan uzten oso ongi daki. Aurreko urtean bera mendean hartzea kosta egin zitzaidan, baina aurtengo partidak ez du zerikusirik, Eriek asko hobetu duelako. Zaila izango da" azpimarratu zuen. Igandean ikusiko da nor sailkatuko den abenduaren 27an Bilbon jokatu den finalerako.

Sakandarrak Nafarroako Binakakoan

Bihar, larunbata, 16:00etan, Nafarroako Binakako Pilota Txapelketako 2. mailako eta 1. mailako finalerdiak jokatu dira Labrit pilotalekuan, publikoarekin baina edukiera mugekin.

Partida erakargarriak egon dira jokoan. 2. mailako finalerdietan, Irurtzun klubeko Murgiondok eta Azpirozek Larraun klubeko Lansalot eta Gurrea izan zituzte aurkari, eta Jamar eta Mina (San Juan) Ariztegi-Ballarenaren (Txaruta) kontra ariko dira. 1. mailako finalerdietan, Igoa etxarriarrak eta Aldabek (Oberena) Ansoren eta Eskirozen (Zugaralde) kontra jokatu dute, eta Garcia-Iruritik (Oberena) Laso-Mariezurrenaren (Huarte) kontra.



Beste bi txapel Sakanara

Ezkurdiak eta Martijak Binakako Txapelketako txapelak jantzi zituzten abenduaren 8an Bilbon, merezimendu osoz, partida ikusgarrian Olaizola eta Urrutikoetxea 13 tantotan utzi eta gero. Etxean prestatutako lezioa oso ongi atera zitzaiera nabarmendu zuten sakandarrak, eta txapela etxekoei, gertukoei eta frontoian egotetik izan ez zuten guztiei eskaini zieten.

Mendigoizaleen eguna urte bat atzeratu da

MENDIA Igandean 55. Mendigoizale Eguna hartu beharko luke Aralarko San Migel santutegiak, baina pandemiagatik ezinezkoa izanen da. Hala ere, santutegiko igandeko 12:30eko meza hildako mendigoizale guztien oroimenez izango da

Mendizaleen urteroko ohitura izaten da Gabonen aurreko igandean Aralarren biltzea. Egutegian gorri markatuta izaten dute data. Nafarroako klub guztietako mendizaleak San Migelen biltzen dira eta egun berezia izaten da: lehenik eta behin Aralarre igotzen dira, toki ezberdinetatik: Uharte Arakil, Lakuntza, Madotz, Lizarrusti, Lekunberri... eta behin goian, joan diren mendizaleak oroitu, San Migelen mendi materiala bedainkatu, aspaldiko lagunak ikusi eta urtea despeditzeko modu polita izaten da. Zendutako mendizaleen aldeko meza izaten da, auzate ederra, trikitixa doinuak, eta batzuk ere dantzatzera animatzen dira.

1964. urtean, urte horretan hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hurrengo urtetik aurrera urtero errepikatu izan da, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatuta. Igandekoa



Mendizaleak Aralarren.

festaren 55. edizioa izango litza-teke, 56. edizioa 1964 urteko ekitaldia kontuan hartuko bagenu, baina, aurtun, tamalez, ez da ospatuko. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak festa bertan behera uztea erabaki zuen

urriaren 22an egindako zuzendaritza batzarrean. "Azken 54 urteetan ospatu dugu ekitaldi hau, eta Nafarroako mendizaleak gustura hurbildu izan gara, urtero, San Migel santutegira. Baina aurtun, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, ezin izango dugu elkarrekin egun hau ospatu. Datorren urtean elkar ikusiko dugu San Migelen" adierazi du federazioak.

Santutegiko igandeko meza, mendizaleen oroimenezkoa

Igandean ez da festarik izanen, baina mendira joatea da gaur egun dagoen planik ia bakarretakoa eta ziur askok Aralarko bidea hartuko dutela, nahiz eta Mendigoizaleen Eguna ez izan. Ildo honetan, Mikel Goiaingeruaren Kofradiak azaldu du, nahiz eta Mendigoizaleen Eguna bertan behera geratu, santutegiko igandeko 12:30eko meza nagusia hildako mendigoizale guztien oroimenezkoa izango dela.

Zurekin oroitu naiz

IRABAZLEAK:

Suhar Lopez de Goikoetxea Goñi (Iturmendi)

Juancar Mogollón Martínez (Irurtzun)

Miguel Moreno Igoa (Urdiain)

Joseba Beltza Bengoetxea (Etxarri Aranzatz)

Leire Mendizabal Crespo (Altsasu)

Olaia Carabias Herrero (Altsasu)

Bixente Mitxelena Arbelaiz (Altsasu)

Maddi Berastegi Jaka (Arbizu)

ANTOLATZAILEAK:

BABESLEA:

LAGUNTZAILEAK:

IRAKURRI
GOZATU
OPARITU



BAZTERRETIK

JUAN CARLOS LÓPEZ-
MUGARTZA

Egia judizialen ehuleak telesail baten aurrean

Altsasuko gertakariei buruzko serie bat hasi da ETB1-en. Lehenengo kapitulua besterik ez zutela eman eta berehalaxe eskuinak geldiarazi nahi izan zuen, (bulego, kaserna eta) epaitegietan ehundu duten egiaekin bat ez datorrelako. Hala eta guztiz ere, asko dira auzitegien inpartzialtasuna, zuzentasuna eta justizia zalantzan jartzen dutenak, haien artean, Estrasburgoko Auzitegia bera, hemengo epaiak baliogabetzen dituen.

Pako Aristi idazleak gutun bat bidali die berriki auzitegiko epaile gorenei esanez ez duela parte hartu nahi haien sisteman, ez epaimahai baten zinpeko bezala, ez bestela ere; alde batetik, justiziak euskarari begirune gutxi diolako (eta horregatik erdaraz idatzi behar izan du), eta beste alde batetik, jende xeheari ere begirunerik ez diolako (izan ere, jakin badaki bere gutunak zakarrontzian bukatuko duela).

Idazlearen esanetan, epaitegiak elite ekonomiko eta politikoak babesten dituen

erakunde bat da, herritar behartsuenak jazartzen dituen. Epaitegietan amaitzen dutenak berdintasunik ezak jotako pertsonak dira eta, aldiz, kartzela inoiz zanpatuko ez dutenak erregeak eta goi gizarteko aberaskumeak dira.

Miresten dituen pertsona asko egon dira kartzelan, haien artean, Gandhi, Mandela, Wilde, Luther King, Guevara, Bertrand Russell, Galeano, Benedetti... eta beste jende hurbilago eta maiteagoa ere bai. Altsasun bezala.

Nork sinetsiko du egia ofiziala, epaia eman baino lehen kondenatuta baldin bazeuden? Nork sinetsiko dio epaileari, epaile izateaz gainera, parte ere bada?

Egiaren bideari jarraitzea besterik ez zaigu geratzen, gertatu zena gogoan hartzea.

Berdin da egiaren defentsaren bide honetan buruan pilotakada bat jasotzen badugu eta belaunikatzera behartzen bagaitu, Olaizolak bezala burua bi eskuez jaso eta lurrera erori gabe altxatzen jakin behar dugu, bai eta sufritzen eta borrokatzen ere, galtzeko beharbada; baina, agian, lan egiten badugu eta saiatzen bagara, irabazi ere egin genezake, Arbizuko Ezkurdiak eta Etxeberriko Martijak maisuki egin duten bezala.



2020ko 'Zama doinu arindu' musika ikuskizuneko partaideak. ARTXIBOA

Egoerara egokitutako jaialdia

Seigarren urtez 'Zama doinu arindu' musika ikuskizuna egingen dute urtarrilaren 17an, Etxarri Aranatzan. 2021. urteko edizioa, aldiz, berezia izanen da: Internet bidezko jaialdia izanen da. Sarrerak dagoeneko salgai daude

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Bost urtetan berrogei musikaritik gora igo dira Etxarri Aranazko kultur etxeko oholtzara Zama doinu arindu jaialdiaren parte izateko. Kontzertu bat baino gehiago dela esan du Mikel Mundiñano jaialdiaren antolatzaileak. "Izenak dioen bezala zama arintzeko ariketa bat da, urrunketak eta salbuespenezko espetxe politikak sortzen duen sufrimendu eta zama guzti hori arintzeko ariketa bat". Aurten ere "modu batean edo bestean" egiteari garrantzia ematen zioten, "zama handiagoa delako; presoek, iheslariak eta senideek bizi duten egoera azkoz gogorragoa da pandemia honek sortu dituen egoerengatik". Hortaz, urtarrilaren 17an, Zama doinu arindu jaialdiaren seigarren edizioa izanen da, Internet bidez.

"Sorpresak" egonen diren arren, dagoeneko kartelaren zati handi bat osatu dute: Eñaut Elorrieta, Erramun Martikorena, Zetak taldea, Skabidean, Anita Parker eta Brigade Loko. Bestetik, urtero bezala bideoek eta kontakizunek garrantzia handia hartzen dute, eta esparru horretan Xabier Silveirak, Expraik eta Erlantz Estebanek ere parte hartuko dute. Jaialdiak presoek, iheslariak eta senideek jasaten dituzten egoerak islatzen ditu egindako kontaktunaren bidez, eta horretarako

gai bat zehazten dute. Aurtengo jaialdiaren formatua "desberdina" denez eta "egoerara" egokitzen den gidoia prestatzen ari dira. "Gaia orokorra izanen da, baina kontuan hartuko du gaur egungo kontestuaren egoera eta momentu honetan Etxarri Aranazko presoen egoera".

Kultur etxetik Internetera

Zama doinu arindu jaialdiaren helburua, "zama" kentzea da; jaialdiaren bidez laguntza ekonomiko "handia bat" lortzen dutela azaldu du Mundiñanok: "Urrunketaren gastuei aurre egiteko". Beraz, aurtengo osasun krisialdiagatik sortutako egoeragatik "ez da bideragarria" urteroko jaialdia egitea. Horregatik, Internet bidez egitea planteatu zuten. "Jendeak sarrerak erosiko ditu, eta egunean bere etxean edo nahi duen tokian ikusiko du". Sarrerak 10 euroko prezioa dute, eta Etxarri Aranazko udalaren webgunean eta Xapatero eta Leku ona tabernetan eros daitezke. Gainera, aur-

ten "ahalegin berezia" egin nahi izan dute: "Herriko jendearen artean arduradunak bilatu ditugu eta haiei sarrera horiek saltzeko ardura eman diegu. Kuadrillen artean zabaltzen ari gara. Ahalegin berezi bat". Sarrerak erosten dituztenek urtarrilaren 17rako esteka bat jasoko dute, kontzertua jarraitu ahal izateko.

Teknikoki zailtasun gehiago eskatzen duela esan du Mundiñanok. "Baliabide teknikoetan inbertsioak egin behar dira, aurten inoiz baino gehiago egingen dugu". Grabaketak egiteko kamerak, soinua ahalik eta egokien hartzeko tresnak... "Ahalegin gehiago egiten saiatu gara, eta horri helduko diogu ez daukagulako besterik". Egoerak behartzen du. "Gure xumetasunetik, guk daukagun gaitasunen eta aukeren arabera, saiatuko gara ahalik eta etxe gehienetara kalitate handiaren iristen".

Etxe batean Internet bidez ikustea desberdina izanen den arren, "jendeak badaki zein formatutan lan egiten dugun, nola egiten dugun lan, eta aurten ere norabide horretan egiten saiatuko gara. Jendeak ikus dezan zer garrantzitsua den zama arintze hori momentu honetan". Jaialdiaren atzetik dagoena eta aurrera eramatearen garrantziaz hitz egin du antolatzaileak ere.



**C.A. OSASUNA
VILLAREAL C.F.**

ABENDUAK 19, LARUNBATA
18:30-20:30

(IRRATIKO KONEXIOA 18:15EAN)

**EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ**

euskalerriairratia

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. ETXARRI A. Iruñea batxilergoa bukatu ondoren ezagutu zuela esan du Xabier Mintegi. "Hiri kuttuna" da etxarriarrarendako. Txikitatik entzierroarekiko grina izan du. Duela hamar urte, 2010eko uztailaren 8an, sanferminetako entzierroetako barreratik salto egin zuen. Unibertsitateko lagun batekin hasi zen, eta lagunak barnetik ezagutzen zuenez, lehenengo aholkuak eman zizkion. "Bertigo" pixka bat ematen duela aitortu du. Baina ordutik, entzierroak bizitzeko modu bat bihurtu dira. Haiekin batera zezenaren mundua ezagutu du etxarriarrak ere. Orain, bizitutako guztia *Amanece en San Fermin* liburuan bildu du. Benetako esperientzietan oinarritu da.

'Amanece en San Fermin' liburu argitaratu duzu. Zergatik?

Idaztea beti gustatu izan zait. Beti. Unibertsitatean lanak egin behar zirenean, eta gaiak aukeratzeko askatasuna geneukanean nire arlora eramaten nituen beti. Dendaren inguruko gaiak... Eta entzierroarekin berdina gertatzen zait. Oso pertsona sentimentala naiz eta barnean daukadana idatziz ateratzea gustatzen zait. Entzierroko sentimendu asko idazten atera ditut. Sare sozialetan, orrietan... Ohar batzuk nituen eta denbora nuen egun batean hiru edo lau batera irakurri nituen. Hortik tiraka eta barnean neuzkan ideia batzuekin elkartuz zerbait idatzi nezakeela pentsatu nuen. Liburu batean bukatuko zela bururatu gabe. Horrela hasi zen.


Nola izan zen prozesua?

Liburuan ikusten da hasiera puntu bat dagoela, gaztetako hasiera puntu bat, eta orain bukatzen dela, heldutasunean, hausnarketa batzuekin. Ez da kasualitatea izan, baina ez da aurretik pentsatuta zegoen zerbait izan. Gai batzuk landu nahi nituen bai ala bai: heriotza, bizitza, zezenari buruzko kapitulu bat dago, jendea buruzko beste bat... Hasierako kapitulu horietan badaude hiru jarraian: entzierroa baino lehenagoko momentuak, entzierroa eta entzierroaren ondorengo momentuak. Horiek egiteko ideia argazki batzuetatik atera zen. Ditudan entzierroaren argazki guztiak gorde egiten ditut, eta hiru karpetetan sailkatzen ditut: entzierro aurrekoak, entzierrokoak eta entzierro ondorengoak. Pentsatu nuen interesgarria izango zela hiru kapi-

"Husten ari nintzen bitartean orriak betetzen ziren"

XABI MINTEGI IDAZLEA

Sanferminetan zezenen aurrean korri egiten bizitako esperientziak liburu batean bildu ditu etxarriarrak: 'Amanece en San Fermin'



Xabi Mintegi idazlea, 'Amanece en San Fermin' liburuarekin. XABI MINTEGI

tulu horiek sartzea. Kontraste handia dagoelako minutu batzuk gelditzen direnean dituzun sentipenen eta minutu batzuk pasatutakoan zer aurpegi eta zer sentipen dituzunen artean. Hori azaltzea nahi nuen.

Besteak beste, bizitzaren inguruko hausnarketa egiten duzu. Eta zuretzat bizitza denbora da.

Ez dakit den soziologia ikasi nuelako edo lanean hasi nintzenetik autonomoa izan naizelako, goxoki dendarekin, edo zergatik; bai-

na horri buruz asko pentsatu dut eta asko pentsatzen dut. Zer bizi kalitate daukagun. Hor sartzen da zertan inbertitzen dugun denbora, zer protagonismo ematen diogun lanari... Horri buruzko gogoeta asko dauzkatz eta entzierroekin eta sanferminekin elkartzea interesgarria zen.

Jendearekiko harremanak ere leku handia dauka.

Aurrekoan Aitor Aranak, Iruñeko lagun batek, esan zidan liburuaren erdia irakurri zuela eta oso ongi zegoela. Hori nabarmendu zuen pixka bat; jendea. Bat egiten genuen esanez entzierroa dela jendeak ikusten duena, baina guretako askoz gehiago dela. Entzierroa, urtean zehar hori buruan izatea da, baloreak barneratzea eta bizitzan aplikatzea. Baita benetako laguntasuna zer den eta zer ez den; bizitzan lagunen artean esperientzia onak eta txarrak izan ditugu, eta horren arabera zeri ematen diogun garrantzia.

Barrenak hustu dituzu?

Idazten nengenean zerbait bitxia gertatu zitzaidan: husten ari nintzen bitartean orriak betetzen ziren. Momentu batean hustu eta bete paraleloki joan ziren. Oso polita izan zen. Dena azaltzea nahi nuen, ez nuen barnean ezer utzi nahi. Lortu dudala uste dut. Behin eta berriz irakurtzen dut, eta idatzi nahi nuena da. Gehiago edo gutxiago transmitituko du, baina pozik gelditu naiz.

Hitzaurrea Fermin Baron 'Pitu'-k idatzi du.

30 urte baino gehiago daramatza entzierroan korri egiten, eta sustrai arbizuarrak dauzka. Berarekin harreman berezia daukat.

Liburu bat idazten ari nintzela esan nion, eta proposatu nion. Niretako ohore bat zen. Ez nion aurretik testua bidali ez nuelako baldintzatu nahi. Irakurri gabe liburuaren gakoak aipatzen ditu, liburuan oso ongi sartzen da. Ez dakit frikitasuna izango den, baina mundu honetan parte hartzen dugunok bizitza antzeko moduan ikusten dugu.

Liburu gehiago idaztea aurreikusten duzu?

Gustatu zait. Mundu berri bat ezagutu dut. Dendarekin ezagutu nuen nire buruarendako lan egitea gustatzen zaidala, eta beti egon naiz bueltak ematen. Orain hau suertatu da, eta helburua barneak hustea zen; ez komertzializatzea. Gustatuko bazen, ongi, bestela, ni gustura gelditu naiz. Baina egia da idazte prozesu horretan asko gozatu nuela. Liburuak irakurtzen duenak ikusiko du ez duela ematen bigarren zati baterako. Nire liburu kuttuna izango da. Ez dakit gehiago egongo diren, baina gehiago badaude hau bereziak izango da.

Autoeditatu duzu, ezta?

Ezagutu dudan beste mundu bat izan da. Behin testua bukatu nuen, nola egin daitekeen ikasi nuen. Argitaletxe klasikoak daude, non zuk testua bidaltzen duzun eta beraiek ikusten dute edukiak komertzialki izan dezakeen eragina. Atera edo ez erabakitzen dute. Gero autoedizioaren aukera dago. Hasieran 400 ale publikatu nituen, eta asko iruditut zitzaidan. Hanka barruraino sartu nuela pentsatu nuen. Batzuk goxoki dendan jarri nituen eta Iruñeko Abarzuzara eta La Casa del Librorra eraman nituen ere. Madriletik ere eskatu didate. 400 aleak bukatu dira eta bigarren edizio bat egiten ari gara. Abenduaren bukaeran iritsiko dira.

Liburuaren helburua?

Entzierroak asko eman dit, eta hau entzierroari eman diezaiokedan gutxi hori bada, ni gustura. Hedapena badauka, hobe.

Gainera, sanferminik eta entzierro-rik egon ez den urtean publikatu duzu.

Kasualitatez izan da. Gauzak sortzen zaizkidanean egiten ditut. Apirila bukaeran izan zen esan nuela gai ikusten nintzela egiteko, eta liburuak fisikoki eskuartean izan nuen konturatu nintzen sanferminik ez dagoen urte honetan izan dela. Jendea nostalgiko egon daiteke, eta horrek agian saltzen lagundu du.

"Bi esperientziak elkartuz gauza politak sor daitezke"

Giltza enplegua aktibatze programan zazpi sakandarrek parte hartu zuten, tartean Ana Belen Padilla administrazio kudeaketa ikasleak eta Patricia Musuña erizain laguntzaile ikasleak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

1 Nola sortu zitzaizuen Giltza programan parte hartzeko aukera?

Ana Belen. Iruñean ikasten dugu, baina Sakana LH institututik deitu ziguten esateko aukera hau zegoela eta ea parte hartzea interesatzen zitzaigun. Gero, Enplegu Bulegoan elkarriketa bat egin behar genuen. Horrelako ekimenetan parte hartzea gustatzen zaigu, eta hau beste trebakuntza saio bat zen.

2 Zergatik horrelako ekimenetan parte hartu?

Patricia. Azkenean, edozein gaiei buruz gehiago jakitea ona da. Hala ere, holakoren batean parte hartzen dugun lehenengo aldia da.

AB. Nire kasuan, publikoaren aurrean lan egin nahi dudanez, gustatzen zait. Orduan, latsa edo beldurak kentzeko ongi datorrit. Sakana LH-n ikasten nuenean Nafarroako Lanbide Heziketako institutuen topaketa egin zen eta bertan parte hartu nuen, eta haurrak zentroa ikustera etortzen zirenean harrera egiten nien.

3 Zer da Giltza programa?

P. Nik uste, gure burua gehiago ezagutzea helburu duen ikas-



Ana Belen Padilla eta Patricia Musuña ikasleak.

taro bat dela. Harritu ninduen. Ez nuen espero horrela izatea. Ez nuen espero egin genituen ariketak hain interesgarriak izango zirenik.

AB. Alde berean, zure burua ezagutzen ari zarenean, hori lan munduan nola erabili ikasten

duzu ere. Hau da, lan munduan nola saldu dezakezun zure burua. Proiektu bat garatu behar genuen, eta, azkenean, proiektu hori gu geu gara.

4 Zer moduzko esperientzia izan zen?

P. Ongi egon zen. Oso jende desberdinengandik ikasi genuen. Printzipioz haiekin ez dugu inolako zerikusirik, helduagoak direlako eta dagoeneko enpresak dituztelako, baina ekintzaile izan nahi baduzu haien esperientziatik ikasten duzu, jendearekin harremanetan jartzen ikasten duzu...

5 Beraz, profil desberdineko jendea zeundeten. Zuek zer eskaini zenuten?

AB. Haiek ikuspegi teknikoegia zuten, eta guk ozartasun puntua eskaintzen genuen. Proposamen berria ginen. Haiek bizi dituzten esperientzietan oinarritzen dira, eta gu bizi ahal ditugunetan oinarritzen gara. Bigauza horiek elkartuz, zerbait oso polita sortzen da.

6 Bi proiektu aurkeztu zenituzten, ezta?

AB. Nire kasuan *Huertika* proposamena egin genuen, hezkuntza eta prestakuntza hobetzeko. Ezgaitasuna duten pertsonen zuzenduta dago. Izan ere, hemen ez dituzte aukera asko, eta haiendako errutina bat izatea oso positiboa da. Ekoiztutako produktuak bertakoak, kilometro zeroak, izango ziren eta Sakanako establezimenduetan salduko ziren. Laguntza kate bat sortzen da.

P. Beste proiektua *Sakana, bizitzan, intentsamente* zen. Ibarreko herri guztiak elkartzen dituen turismo proiektu bat zen, non lan arlo guztiak sartzen diren. Marka bakar baten inguruan doa proiektua, eta helburua Sakana elkartzea da.

7 Proiektuak martxan jarriko dituzue?

P. Esan zuten proiektuei bueltak emanen dizkietela eta agian an-

tzeko proiektuaren bat bai garatu daitekeela.

8 Nolako ariketak egiten zenituzten?

P. Bost arratsalde izan ziren, hogeitaz. Bi presentzialak izan ziren eta besteak online. Lehenengo egunean elkar ezagutu genuen eta gero esker oneko kate bat egin genuen. Komertzioen funtzionamendua ikusteko aukera izan genuen.

AB. Maskara batekin hasi ginen, denda batean maskara eskaini genion beste produktu baten truke. Bertako txistor batekin bukatu genuen.

9 Zer eramaten duzue?

P. Nahiko ongi moldatu naitekeela. Pixkanaka, asko kostatzen zaidalako; baina nahi badut latsa alde batera utz dezakedala.

AB. Konturatu naiz konfiantza pixka batekin gauzak egin ditzakedala. Badirudi oso pertsona irekia naizela, baina gero ez da horrela. Aurreiritzi asko izaten ditut ere, eta pentsatzen dut pertsona helduek ez dutela nire iritzia jakin nahi gaztea naizelako. Baina elkarrekin asko ikasten da.

10 Ikasitakoak zertarako erabili dezakezue?

P. Lana bilatzeko orduan nire burua hobe saltzeko lagunduko dit.

AB. Nire ikasketek produktuak saltzarekin zerikusia dute, orduan, nire burua saltzeaz gain nire lanerako ere lagungarria izan daiteke.

11 Nola ikusten duzue etorkizuna?

Ikasten jarraituko dugu.

WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK
LIBURU ALDIZKARI MAKETAZIOA KARTEL PAPER GINTZA APLIKAZIOAK
IRUDI KORPORATIBOAK KOMUNIKAZIOA PUBLIZITATEA

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu



DISEINU GRAFIKOA
 WEB DISEINUA
 KOMUNIKAZIOA